

«Artikuluok zentzuetatik iragazitako errealitatearen islak dira»

EREINEK ARGITARATUTAKO 'URETAN LEZ' LIBURUA IDATZI DU YOLANDA ARRIETAK. EREINEN BAKANAK SAILEKO 10.A DA

Testua: **Patxi Sarriegi**

Egunerokotasunetik abiatutako hausnarketa zabalak eskaintzen ditu Yolanda Arrietak bere azken liburuan. Prentsan argitaratutako artikulu labur-mamitsuak dira, eguneroko bizimoduari begiratzeko modu pertsonala agertzen dutenak. Deitale txikietatik eraikitako gogoetak dira askotan, gaurkotasan bete-betekoak bestetan. Yolanda Arrietaren esanetan, iritzia eta emozioa bildu ditu berauetan, bizitzaren alde gordeak deskubritzeko bideak gertatu zaizkio artikuluok.

2004tik 2007ra bitartean Deia eta Berria egunkarietan argitaratutako artikuluak argitaratu dituzu liburu berrian. Nola sortu zen liburu hau argitaratzeko ideia?

Ariketa literarioak izanik, material pila batekin aurkitu nintzen, ez nintzen gogoratzen oso ondo zer esanda neukan eta zer ez. Esanda neukan hori guztia nolabait bildu beharra neukala ohartu nintzen, berriro ez errepikatzeko, eta aldi bati atea behar bezala itxi eta hurrengoa zabaltzeko.

Zenbat artikulu bildu dituzu liburuan? Zeren arabera aukeratu dituzu?

Ez dakit oso ondo zenbat diren, ez baititut zenbatu. Asko dira aukeratuak, asko ere utzi ditudanak. Gustukoenak aukeratu ditut, niri neuri, oraindik ere, zerbait esaten didatenak eta, era berean, bizi dugun garaian, aldaketak aldaketa, oraindik ere adierazgarri izan daitezkeenak gaiaren trataeragatik nahiz albiste iturriaren eboluzio ezarengatik.

Ipuina, fikzioa, kritika, gogoeta... zer gailentzen da liburuan zehar?

Egunerokotasunetik abiatutako hausnarketa zabalak. Bizitzari begiratzeko modu pertsonal bezain sozialak. Detalle txikietatik eraikitako ariketa literarioak. Zentzuetatik iragazitako errealitatearen islak... Edukietatik eraikitako formak dira, irakurleak esan dezala zer diren.

Gure gizartea azaltzen duten artikuluak ere sartu dituzu; esate baterako, Familia, Etxeko ardurak, Aitarene eguna... nola bururatzeko zaizkizu gaiak?

Hasieran, ohiko iritzi artikulua formari heltzen nion idazteko orduan, baina beti gertatzen zen zerbait, albiste gisa, garrantzitsuagoa zena eta, ondorioz, beti zalantzan ibiltzen nintzen. Ez nuen gozatzen. Beraz, formula berri bila hasi nintzen: «adi egongo naiz bizitzari baina bakarrik baruan 'dilin' egiten didaten horiei helduko diet» pentsatu nuen. Eta halaxe egin nuen. Adi egotean, beti dago zerbait deigarri egiten zaidana, eta horri tira eginez ohartu nintzen, plazerrez ez ezik, arin eta solte ere idazten nuela, eta, gainera, idatziak berak neure burua definitzen ere laguntzen zidala. Laburtuz, iritzia eman beharra barik, emozioa jarri nuenean idazteko giltzarri, dena aldatuz eta gaiak berez etorri ziren.

Komunikabideek zabaltzen dituzten estereotipoak alde batera uzten saiatu zara artikuluotan...

Bai, idatziok neure burua bilatzeko eta definitzeko bilaketa-ariketak izan diren neurrian, horretan saiatu naiz.

Gogoetarako testuak dira, denborapasa-



Artikuluotan komunikabideek zabaltzen dituzten estereotipoak alde batera uzten saiatu da Yolanda Arrieta.

koak baino?

Batak ez du bestea kentzen. Zergatik ez, denbora pasatu, bide batez gogoeta eginez?

Liburuan hainbat pertsonaia ere gogoratu dituzu, esate baterako, Jose Martin Apalategi edo Asun Balzola...

Bai, eta Andolin Eguzkitza, Begoña Bilbao, Juan Mari Lekuona... Tokatu egin zitzaidan eta neure akorduan gorde izan nintzen, bizitza egokitu zaidan aldiko kideak izan direlako, batzuk ezagunagoak beste batzuk baino, baina guztiak, aldi honetako bizikide eta guztiak garaiotako erreferentzia. Bide batez, heriotzari neure zentzu propioa bilatzen lagundu didate, maite ditugun eta alde egiten diguten horiek guztiak beste nonbait daudela gure zain sinestu nahi dudalako.

Zenbaitetan txikitako oroimena berreskuratzeko lagungarriak gertatu al zaizkizu honelako artikuluak?

Txikitako oroimenek gaurko ahotsa erakitzen lagundu didate. Haur ahotsa, handiak garenerako, amatatzen utzi behar ez den txinparta dela begitantzen zait.

Gertuko kontuez idaztea errazagoa al da aspaldikoez baino?

Aspaldikoa gertuko egiten dugunean ez dago bereizketarik. Emozioak mugitzen gaitu eta arrazoiak zuzendu. Emozioak eta arrazoiak batera lan egiten dutenean, denbora eta espazioa zerbait deskubritzeko erronka bihurtzen dira; elkarren kide, ezetsai.

Non sentitzen zara erosoago, prentsarako artikuluak idazten ala haur eta gazteentzako ipuinak sortzen?

Unean unekoa. Badira aldiak neure alde heldua lantzekoak, badira neure haur edo nerabe aldeak lantzekoak... Idaztea, sor-tzea eta bizitza geure alde gordeak deskubritzeko bideak direla uste dut eta bide horiek asetzen saiatzen naiz unean uneko une errepikaezina ahalik eta beteen biziz; bizitza, ura lez, badoalako...

'Maite kuttuna' dela eta ETBri kritika egiteko idatzi duzu artikulu batean.

Ba, bai, baina halakoak botatzen jarraitzen dute. Dena den, egunotan irakurri be-

rri dut haurren telebistako programak begiratzeko eta zaintzeko eskatu dutela gobernuan... Etxean hasten da umearen gobernu baina, gaur egun, etxeak adina eragin dauka gizarteak ere eta, zalantzarik gabe, telebista da horren isla bat. Uste dut gehiago begiratu beharko genituzkeela beraren bidez transmititzen ditugun irudi, emozio, rol, balore eta harreman-motak, beti ere, aitakeria orotik urrunduz baina jakinaren gainean egonda helduok garelako ondorengoei jaten ematen diegunak. Eta, zer jan, hura zara...

la liburu bukaeran 'Sari bat irudimenari' izenekoan Ikastolen Elkarteak Londresen jasotako sariak diharduzu.

Bai, halako berriak gure 'imajinarioa' elikatze moduko albisteak direlako. Bertan agertzen da zergatik: euskartatik abiatuta egindako lanagatik, hezkuntza, umeak eta etorkizuna eraikitze ahaleginagatik, gizonezko eta andrazko arteko lankidetzagatik, eta antzeko lan isil eta esker gutxikoetan dabilzan guztientzako keinu positiboarengatik.